

Hitzaurrea



uosque tandem...! 60 eta 70 urteetako euskal artearen erreferentea izan zen liburua idatzi zuen Jorge Oteiza handiak; kultura baten formakuntza prozesuan denboraren joan etorrian ematen diren lengoaiak eta adierazpen kulturalen azterketa konparatibo entzutetsua, hain zuzen ere. Behinola honetan, besteak beste, kultura ezberdinen literaturek izan dezaketen loturen gainean hitz egingo dugu. Horretarako, aprobetxatuko dugu uztailaren 3tik 5era Donostiako Miramar Jauregian OEPLik antolatu zuen Haur eta Gazte Liburuaren IV. Iberiar Biltzarrak emandako fruitu zenbait. Biltzarraren leloa hau izan zen: «Desberdin Irakurriz: Haur eta Gazteen Liburua Kultura Aniztasunean».

Hitz eta Pitz sailean, Donostiara gerturatu zela aprobetxatuz, **PATRICIA ALDANARI** elkarrizketa egin genion. Patricia IBBYko (*International Board on Books for Young people*) lehendakaria da. Patricia Kanadan kokatua dagoen Greenwood Books editorialaren nagusia da, hau erreferente bat da sektorean. Haur eta gazte liburuak plazaratzen denbora luze darama, hogeita hamar urte inguru.

Aldana Guatemalan jaio zen, baina aspaldi Ontarion bizi da. 2006. urtean *International Board on Books for Young People* (IBBY) elkarteko lehendakaria izendatua izan zen.

Hizpide atalean biltzarrean aditu ziren bi hitzaldi eder orain paperean gozatzeko aukera izango dugu. Honako hauek dira aukeratu ditugunak: **ELISA BONILLA** eta, elkarrekin, **JUAN KRUIZ IGERABIDEK** eta **PATXI ZUBIZARRETAK** egin zutena.

ELISA BONILLAREN hitzaldiak izenburu hau du: «Mexikon aniztasunari ematen zaion arreta irakurleak trebatzeko garaian». Bere hitzaldiak hiru ardatz ditu: inguru demografikoa, aniztasunaren kontzeptua eta zenbait adibide praktikoa eta zehatz.

Lehenengo puntuan, Mexikok duen hizkuntz eta kultur aniztasunaren gainean mintzatzen da.

Bigarren atalean, Elisak idazleak kultur elkarrizketetan ezinbesteko bitartekari gisa eta ondare artistikoaren zaindariak bezala irudikatzen ditu. Aniztasunaren inguruan hitz egiterakoan Elisak uste du testu mota guztiak eta egile kopuru ahalik eta handiena kontuan hartu behar dela.

Azkeneko ardatzan, Mexikoko Irakurketa Programa Nazionala azaltzen du. Modu berean, hemendik hara eta handik hona dauden ume jornaleroentzat ezarri dituzten programa hezgarrien berri ematen du.

PATXI ZUBIZARRETAK eta **JUAN KRUZ IGERABIDEK** egindako hitzaldiaren izenburua honakoa da: «Desberdin irakurri».

PatxiK lau aipamen aukeratu zituen eta Juan Kruzek beste lau (Rafik Shami, Eduardo Galeano, Juan Goitysolo...) zortzi osotara, eta aipamen horien inguruan zenbait iruzkin egiten dituzten.

Hitzaldiaren ideia nagusiak hauek dira:

- Guztiok inmigrante afrikarrak gara, izan ere, kontinente horretatik giza arraza hedatu omen baitzen Lurra planeta osoan zehar. Bidaariak gara, eta bidaia beti ikara eta arriskua dakar.
- Existentziaren bidaian, zenbat eta azkarrago bizi, orduan eta gehiago ahazten da (Milán Kunderak definitutako matematika existentziala).
- Politika eta lukainka antzekoak dira, nazka ematen du nola egiten diren ikusteak (Rafik Shami).
- Idazleek obra egoki eta ongi eginak egiten ikasi dugu. Editoreek berdin jokatzeko dute, nahiago dituzte arrisku gutxi eta ongi egindako lanak, eta ez lan arriskutsuak nahiz eta distira handikoak izan. Egokitasunak egiazkoari aurre hartzen dio.
- Ezberdina ezberdin bezala onartu.

Hitzontzi atalean, OEPLik burututako biltzarraren aitzakian Koldo Mitxelena liburutegian antolatutako erakusketan **PATXI ZUBIZARRETAK** egindako testuen aukeraketa azalduko zaigu guztion gozamenarako.

Hitz beste txokoan, ohi den bezala, hainbat liburuen erreseinak aurkituko ditugu.

Hitzatzea **IZASKUN JAUREGIK** burutu du. Izaskun Donostian egindako biltzarraren hausnarketa libre oso interesgarria islatu du bere hitzetan.

Bestalde, **JUAN CARLOS EGILLORREK** egindako ilustrazioek kolorea eta bizitasuna emango diote hitzaldi, elkarrizketa eta gainerakoei. Gure partetik eskerrik asko egindako lanagatik.

Bukatze aldera, esan nahi dizuegu gure Behinola maitea pixka bat internazionalizatu zaigula eta zenbait atalek gaztelarazko eta ingelesko laburpenak izango dituztela (azken hauek **SARAH J. TURTLEK** eginak dira).

Ezin bukatu hitzaurre hau **ANA PELEGRÍN** gogoan hartu gabe, 2008ko irailaren 11n hil egin baitzen. Ana Pelegrín haur poesiaren eta aho tradizioaren ikerketan erreferentzia nabarmena izan da, eta izango da; goian bego.

Azkenik, gure zorion beroenak **PELLO AÑORGARI** berriki *Jenio gaiztoa* (Aizkorri, 2007) liburuarekin 2008ko Haur eta Gazte Literatura Euskadi Saria lortu baitu. (17. Behinola, 44. orrialdean erresina dago) Zorionak Pello!!